

zaharrak berri • zaharrak berri • zaharrak berri




Bazko Erromeria, Loiolan

Urumearen alde lan egiteko talde berri bat sortu da. Bere lehenengo eginkizuna Loiolako erromeriek –batez ere Bazko Astekoek– antzina garrantzi handia zutela gogoraztea izan da. Bilintxek hauek zituen gogoan «*Beiu batian Loyolan*» kanta ospetsua, orain dela zenbait urte «*Égan*» taldeak indarberritua, idatzi zuenean. Donostian uda pasatzen zuen aristokraziak ere gustoko zuen Urumean gora eta behera txalupaz ibiltzea. Isabel II.ak, adibidez, 1845. urtean antolatu zuen bere lehenengo eskursioa. Hala ere,

argazkia: Kutxa Fototeka. Argazki artxiboa. Gipuzkoa Donostia Kutxa.

erromeriarik arrakastatsuenak mende honen hasierakoak izan omen ziren. Luis Murugarrenek dioenez, «*kaupokoak Bulebar eta Kontxa inguruan zebiltzan bitartean, bertakoak Loiolara biltzen ziren. Urumea ertzer*». 1911. urtean, A. Laffittek honako hau idatzi zuen: «Loiolako plaza bera, inguruko mendi-maldak, Urumeko txalupak... den-dena jendez gainezka dago. Hau bezain ikuskizun eder gutxi dago!» Ondoko argazkia 1918. urtekoa da. Jendetza ikusita (gutxigorabehera egun umeen parkea dagoen lekuan bilduta), ezin da ukatu urte hartako erromeria ere arrakastatsua izan zela. Josu Tellabidek dioskunez, ezkerrean ikusten den eraikina Udalarena zen (gordelekuren bat edo). Urumean bestaldean –hau da, Egiako Kostan, hori guztia Egiako Kosta baitzen– ikusten den baserria, berriz, Pottorrene da. Eskubian, argazkian ikusten ez bada ere, Ezkurrene baserria zegoen. Ezkurreneko lursailetan eraiki ziren Koartelak. 1927. urtean.

M. URKIA



PAPER-DENDA

- AGENDAK
- KARTAPAZIOAK
- ESFERAK
- KLASIFIKADOREAK
- MOTXILAK
- ETA BESTE ZENBAIT ARTIKULUETAN...



IGANDE
ETA
JAIEGUNETAN
ZABALIK

%15eko
DESKONTUA

FERMIN KALBETON, 30 - DONOSTIA - TFNOA.: 420930